

CIRP-en Batzar orokorra Kopenhagen

2013/09/16

CIRP-ek burututako azken batzarrean, (Kopenhage, Danimarka, abuztuak 18-24), Pedro J. Arrazolak Scientific Technical Committee of Cutting-aren keynote-a (hitzaldi magistrala) aurkeztu zuen ondorengo izenburuarekin: *“Recent advances in modelling of metal machining processes”*.

Lan horretan mekanizazio-prozesuen modelizazioan azken 15 urteetan egindako aurrerapenak laburbiltzen dira, eta gaur egun bere garapenerako dauden mugak eta etorkizunera begira dauden ikerketa ildoak zehazten dira.

Ekitaldian inoizko parte hartzerik handiena izan zen, 30 herrialdetako 550 ordezkari baino gehiago bertaratu ziren. Jardunaldian hainbat arlo teknologikotako 7 keynote eta 144 txosten aurkeztu ziren.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak gaur egun bi bazkide ditu CIRP-en: Pedro J. Arrazola eta Iván Gallego.



CIRP-en batzar nagusua